


Osasun Eskualde Oinarrizkoa

Ansoáin / Antsoain



Observatorio de Salud Comunitaria de Navarra
Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia



1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2020):	10.836 Emak.: %50,8 Giz.: %49,2
Batez besteko adina:	Emak.: 41,7 Giz.: 40,2
Jaiotza tasa:	%6,5
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 25
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%23
Atzerrian jaiotako biztanleak:	%13,1
Bizi itxaropena:	Emak.: 84,1 Giz.: 78,7
Zabalera:	1,91 km ²
Zer Eskualdetakoa den:	Eremu Zentrala (ikuz mapa)
Udalerriak:	Ansoáin

2. Komunitatea eta osasuna

Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak. Antsoaingo Osasun Eskualde Oinarrizkoa portzentajerik txikienetakoak ditu adierazleotan: pobrezia larriaren arrisku-tasa (% 5,3), 20 urtetik beherako amak dituzten jaioberriak (% 1,4) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonen etxeak (% 16,4). Hala ere, portzentajerik handiena duten eskualdeetako bat da bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumeen etxeen adierazlean (% 44,4).

Osasunari dagozkion emaitzak. Antsoaingo Osasun Eskualde Oinarrizkoa emaitzarik okerrean dituzten eskualdeen % 25,0ren artean dago 2. motako diabetesa diagnostikaturikoen prebalentzia (% 7,0 emakumeetan eta % 9,9 gizonetan), antsiolitikoen eta antidepressiboen kontsumoan emakumeen artean

(% 17,8) eta pisu gehiegi duten 6tik 9ra arteko haurretan (% 36,0 nesketan eta %35,7 mutiletan). Nafarroako batezbestekoaren inguruan daude bai morbiditatearen eta osasun-sistemaren gainerako adierazleak eta bai soilik amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko haurren adierazleak.

Inkesta-adierazleak. Hurrengo emaitza doitu* hauek Eremu Zentrala deituriko eskualdeari dagozkio (LAP zonifikazioa); Etxabakoizko eskualde oinarrizkoa eskualde horretan dago. Eremu Zentralean emaitzarik onenak adierazleotan daude: 15 urte edo gehiagoko pertsonen gehiegizko pisua (% 32,7 emakumeetan eta % 52,6 gizonetan), emakumeen fruta- eta barazki-kontsumoa (% 39,1) eta gizonen alkohol-kontsumoa (% 25,3). Aitzitik, datuotan daude emaitzarik okerrean: eguneroko tabako-kontsumoa emakumeetan (% 13,1) eta ongizate orokor txikia (% 27,8 emakumeetan eta % 21,4 gizonezkoetan).

***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.


Osasunerako baliabideak

Komunitatean badira osasunerako zenbait aktibo ahalmena dutenak norbanakoek, komunitateek eta herriek osasuna eta ongizatea mantendu eta sortzeko duten gaitasuna indartzeko (salutogenesia).

[-> Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

3. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 5-6: SIPNA (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Udal. Estat; 4: Errenta. Estat; 7: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatien Informazio Geografikoko Sistema); 8, 23-26, 29-30: Oinarritzko osasun-laguntza; 9-20: ESYCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 21-22: NOPLOI; 27-28: Farmazia prestazioa

Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (9-20) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduaren, morbiditatearen eta osasun sistemaren adierazleetarako eginiko kontrastea).

1. Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; 2. DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; 3. Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; 4. Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxetan bizi diren pertsonen %; 5 eta 6. Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; 7. Baso-azalaren %; 8. 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; 9 eta 10. Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 40,4 eta gizonak 20,4); 11 eta 12. 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doitua: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 20,1 eta gizonak 14,5); 13 eta 14. Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doitua (t. gordina: emakumeak 6,3 eta gizonak 34,5); 15 eta 16. Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 13,8 eta gizonak 15,3); 17 eta 18. Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 26,3 eta gizonak 15,8); 19 eta 20. Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 47,2 eta gizonak 61,6); 21 eta 22. Pisu gehiegi -gehiiegizko pisua edo obesitatea duten- 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doitua, OMEk haurren hazkuntzarako emaniko ereduen arabera (T. gordina: emakumeak 33,5 eta gizonak 31,6); 23 eta 24. 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doitua (T. gordina: emakumeak 7,9 eta gizonak 10,1); 25 eta 26. Kronikoen estrategian lehenetsitako 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 3,2 eta gizonak 6,1); 27 eta 28. Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doitua: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (t. gordina: emakumeak 19,2 eta gizonak 8,9); 29. 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; 30. Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaion biztanleriaren %.